2. Asimismo, en los casos de separación legal o cuando no existiera vínculo matrimonial o pareja de hecho, así como en los casos de existencia de resolución judicial al efecto, será unidad familiar la formada por un progenitor y todos los hijos que reúnan los requisitos a que se refiere el apartado anterior, independientemente de con quien convivan. En estos casos, en el supuesto de existir otro progenitor, éste no formará parte de dicha unidad familiar.

A los efectos de constituir unidad familiar, la totalidad de los hijos se atribuirá a uno solo de los padres, según acuerdo de ambos.

Si no constare dicho acuerdo, constituirá unidad familiar el progenitor con la totalidad de los hijos cuyo cuidado tenga atribuido de forma exclusiva en virtud de resolución judicial. En este supuesto podrán existir dos unidades familiares y cada unidad familiar estará constituida por el progenitor y los hijos cuyo cuidado tenga atribuido judicialmente de forma exclusiva. En este caso para constituir unidad familiar se precisará tener atribuido judicialmente el cuidado de algún hijo.

3. Nadie podrá formar parte de dos unidades familiares al mismo tiempo.

4. La determinación de los miembros de la unidad familiar se realizará atendiendo a la situación existente a 31 de diciembre de cada año.

En el caso de fallecimiento durante el año de algún miembro de la unidad familiar, el restante o restantes miembros de la unidad familiar podrán optar por la tributación conjunta, incluyendo en la autoliquidación las rentas del fallecido y, en su caso, las deducciones personales y familiares, incluidas en el Capítulo III del Título VII de esta Norma Foral, a que dé derecho el fallecido que haya formado parte de la unidad familiar, sin que el importe de dichas deducciones se reduzca proporcionalmente hasta dicha fecha.

Artículo 99. Normas aplicables a la tributación conjunta.

1. En la tributación conjunta serán aplicables las reglas generales de este Impuesto sobre determinación de la renta de los contribuyentes, determinación de las bases imponible y liquidable y de la deuda tributaria, con las especialidades que se fijan en este artículo.

2. Banakako tributaziorako finkatutako zenbateko eta muga kuantitatiboak neurri berean aplikatuko dira baterako tributazioan, familia unitateko kide kopuruaren arabera gehitu eta biderkatu gabe.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera:

a) Familia unitateko kide batek baino gehiagok jaso badituzte lanaren etekinak, foru arau honetako 23. artikuluan aipatzen den hobaria lanaren etekin guztiak kontuan hartuta aplikatuko da, jasotzaileen kopurua gorabehera.

b) Zerga honi buruzko arau orokorrekin bat etorritik, familia unitateko kideek Zerga banaka ordaindu duten aurreko zergaldietan sortu eta konpentsatu ez dituzten jarduera ekonomikoen etekinen saldo negatiboak, aurrezkiaren zerga oinarriaren saldo negatiboak, ondare-galerak eta likidazio oinarri orokor negatiboak konpentsatu daitezke.

Hurrengo zergaldi batean Zerga banaka ordainduz gero, aurrean aipatutako kontzeptuak zein zergadunek konpentsa ditzaketen zehazteko foru arau honetan errentak bakoitzeko ezarritako arauak aplikatuko dira.

c) Foru arau honetako 71. eta 72. artikuluetan eta zortzigarren xedapen gehigarrian zerga oinarri orokorra murrizteko ezarritako gehieneko mugak banaka aplikatuko ditu familia unitateko partaide, mutualista, aseguru edo bazkide bakoitzak. Era berean, zergadun bakoitzaren zerga oinarriaren proportzioa kontuan hartuko da foru arau honetako 67. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

d) Foru arau honetako 83. artikuluan ezarritako kenkaria bertan aipatzen den adina daukaten zergadunek aplika dezakete. Kenkari hori aplikatzeko ezinbestekoa da baterako tributazioaren zerga oinarria, 83. artikuluko 4. idatz zatian ezarritakoaren arabera kalkulatu, 35.000 euro baino gehiago ez izatea.

e) 36.000 euroko kopurua, foru arau honetako 87. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen dena, zergadun bakoitzari banaka aplikatuko zaio. Hala ere, urtean aplika daitezkeen gehieneko kenkaria, foru arau honetako 87. artikuluko 2. eta 4. idatz zatietan aipatzen dena, ezin da izan 1.530 edo 1.955 eurotik gorakoa, hurrenez hurren, familia unitateko kideen kopurua gorabehera; salbuespena: familia unitateko kideek Zerga batera ordaintzea hautatuz gero, foru arau honetako 98. artikuluko 1. idatz zatian ezarri den bezala, kenkariaren gehieneko kopuruak aurreko horiek hala bi izango dira.

f) Foru arau honetako 93. artikuluan aipatzen den kenkaria langileen sindikatuei kuotak ordaintzen dizkion zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

3. Zerga batera ordaintzea hautatzen duen familia unitateko pertsona fisikoek lortutako errentak, mota guztietakoak, batera kargatuko dira.

4. Baterako tributazioan, autoliquidazioa familia unitateko adin nagusiko kideek sinatu eta aurkeztu behar dute; kide horiek familia unitateko adin txikikoak ordezkatzeko dituzte, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 45. artikuluko 1. idatz zatian xedatutakoaren arabera.

5. Familia unitateko kide guztiak zerga honen kargapean daude, denak batera eta maila berean; nolana ere, zerga zorra denen artean hainbanatzeko eskubidea dute, bakoitzari dagokion errenta finkoaren zatiaren arabera.

XI. TITULUA

ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

100. artikulua. Zergaldia eta sortzapena: arau orokorra.

1. Zergaldia urte naturala da.

2. Zerga abenduaren 31n sortuko da urtero, hurrengo artikuluan ezarritakoa gorabehera.

101. artikulua. Urte naturala baino laburragoa den zergaldia.

1. Zergaldia urte naturala baino laburragoa izango da zergaduna abenduaren 31 ez den egun batean hiltzen bada.

2. Los importes y límites cuantitativos establecidos a efectos de la tributación individual, se aplicarán en idéntica cuantía en la tributación conjunta, sin que proceda su elevación o multiplicación en función del número de miembros de la unidad familiar.

No obstante lo establecido en el párrafo anterior:

a) Cuando haya más de un perceptor de rendimientos del trabajo, la bonificación a que se refiere el artículo 23 de esta Norma Foral se aplicará teniendo en cuenta la totalidad de los rendimientos del trabajo, independientemente del número de perceptores.

b) Serán compensables, con arreglo a las reglas generales de este Impuesto, los saldos negativos de rendimientos de actividades económicas, los saldos negativos de la base imponible del ahorro, las pérdidas patrimoniales y las bases liquidables generales negativas, realizadas y no compensadas por los contribuyentes componentes de la unidad familiar en períodos impositivos anteriores en que hayan tributado individualmente.

Los indicados conceptos serán compensables exclusivamente, en caso de tributación individual posterior, por aquellos contribuyentes a quienes correspondan de acuerdo con las reglas sobre individualización de rentas contenidas en esta Norma Foral.

c) Los límites máximos de reducción de la base imponible general previstos en los artículos 71 y 72, así como en la Disposición Adicional Octava de esta Norma Foral, serán aplicados individualmente por cada partícipe, mutualista, asegurado o socio integrado en la unidad familiar. Asimismo, se tendrá en cuenta la proporción de base imponible de cada contribuyente a los efectos de lo dispuesto en el artículo 67 de esta Norma Foral.

d) La deducción prevista en el artículo 83 de esta Norma Foral se aplicará por cada contribuyente que tenga la edad a que se refiere dicho artículo. Para la aplicación de esta deducción, la base imponible en tributación conjunta, calculada conforme al apartado 4 del citado artículo, deberá ser igual o inferior a 35.000 euros.

e) La cifra de 36.000 euros a que se refiere el apartado 3 del artículo 87 de esta Norma Foral se aplicará individualmente por cada contribuyente. No obstante, la deducción máxima anual a que se refieren los apartados 2 y 4 del artículo 87 de esta Norma Foral no podrá superar, respectivamente, las cantidades de 1.530 y 1.955 euros, independientemente del número de miembros de la unidad familiar, salvo en el caso de declaración conjunta de las unidades familiares a que se refiere el apartado 1 del artículo 98 de esta Norma Foral en que dichos límites se duplicarán.

f) La deducción prevista en el artículo 93 de esta Norma Foral se aplicará por cada contribuyente que satisfaga cuotas a sindicatos de trabajadores.

3. Las rentas de cualquier tipo obtenidas por personas físicas integradas en una unidad familiar que hayan optado por la tributación conjunta, serán gravadas acumuladamente.

4. La autoliquidación en tributación conjunta será suscrita y presentada por los miembros de la unidad familiar mayores de edad que actuarán en representación de los menores integrados en ella en los términos del apartado 1 del artículo 45 de la Norma Foral General Tributaria de Álava.

5. Todos los miembros de la unidad familiar quedarán conjunta y solidariamente sometidos a este Impuesto, sin perjuicio del derecho a prorratear entre sí la deuda tributaria, según la parte de renta sujeta que corresponda a cada uno de ellos.

TÍTULO XI

PERÍODO IMPOSITIVO Y DEVENGO

Artículo 100. Período impositivo y devengo: regla general.

1. El período impositivo será el año natural.

2. El impuesto se devengará el día 31 de diciembre de cada año, sin perjuicio de lo previsto en el artículo siguiente.

Artículo 101. Período impositivo inferior al año natural.

1. El período impositivo será inferior al año natural cuando se produzca el fallecimiento del contribuyente en un día distinto del 31 de diciembre.

2. Aurreko idatz zatian azaldutako kasuan, heriotza egunean amaituko da zergaldia eta orduan sortuko da zerga, ezertan ukatu gabe foru arau honetako 98. artikuluko 4. idatz zatian Zerga batera ordaintzea hautatzen den kasuetarako xedatutakoa; horrelakoetan, Zerga batera ordaintzea hautatu eta bidezko murrizketa aplikatzearen ondorio soilletarako, heriotza abenduaren 31n gertatuzat joko da.

XII. TITULUA

KUDEAKETA

I. KAPITULUA

AUTOLIKIDAZIOAK

102. artikulua. Autolikidazioa egin beharra.

1. Zergadunek zerga honen autolikidazioa aurkeztu eta sinatu beharko dute; arau bidez finkatuko dira mugak eta baldintzak.

2. Hala ere, errentak ondoko iturrietatik soilik lortzen dituzten zergadunek ez dute autolikidaziorik egin beharko:

a) Lanaren etekin gordinak; 12.000 euro gehienez banakako tributazioan. Baterako tributazioan, muga hori horrelako etekinak izan dituen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

b) Lanaren etekin gordinak; 12.000 eurotik gora eta 20.000 gehienez urtean banakako tributazioan, 3. idatz zatian aipatzen diren egoeretako batean sartuta daudenentzat izan ezik. Baterako tributazioan, muga hori horrelako etekinak izan dituen zergadun bakoitzari aplikatuko zaio.

c) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak, salbuesiak barne (bi kontzeptuak), urteko guztirako zenbatekoa 1.600 euro baino gehiago ez bada.

3. Aurreko idatz zatiko b) letran adierazitako zergadunek zerga honen autolikidazioa aurkeztu behar dute kasu hauetan:

a) Ordaintzaile baten baino gehiagoren lan etekinak jaso badituzte.

b) Ekitaldian lan kontratu bat baino gehiago sinatu badute (lanekoa zein administratiboa), edo indarrean egon dena luzatu badute.

c) Ezkontideak edo izatezko bikotekideak emandako konpen-tsazio pentsioak edo mantenurako urtekoak, foru arau honetako 9. artikuluko 1. zenbakian ezarritakoak ez beste batzuk, jaso badituzte.

d) Arauz ezarritako egoeraren batean sartuta badaude.

Hala ere, idatz zati honetan ezarritakoaren arabera zergadunak autolikidazioa aurkeztu behar badu, hauetako bat hautatu ahal izango du:

- Zerga berari buruzko xedapen orokorrekin bat etorri ordaindu

- Zerga lanaren etekinak soilik kontuan izanik ordaindu, arau hauek aplikatuz:

a) Lanaren etekinetarako ezarritako atxikipen ehuneko taulak sortutako lanaren etekinen zenbateko osoari aplikatuko zaizkio; salbuespena: foru arau honetako 9. artikuluan xedatutakoaren arabera salbuespena dauden etekinak. Horretarako atxikipena aplikatu behar zaie etekinen zenbatekoa kalkulatzeko arauak hartuko dira kontuan, bai eta Zerga sortzen den egunean indarrean dauden atxikipen taulak finkatzeko eta aplikatzeko arauak ere.

b) Aurreko a) letran ezarritako eragiketaren emaitzako kopurutik lanaren etekinen gainean egindako atxikipenen eta kontura egindako sarreren zenbatekoa kenduko da. Horren emaitzako kopurua Foru Aldundiari ordaindu beharko zaio; ordainketa arau ezartzen den bezala zatikatu ahal izango da. Likidazio honen ondorioz inolaz ere ez da diru kopururik itzuliko.

2. En el supuesto previsto en el apartado anterior, el período impositivo finalizará, devengándose el impuesto en la fecha del fallecimiento, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 98 de esta Norma Foral para los casos en que se opte por la tributación conjunta, en cuyo caso y a los solos efectos de optar por la tributación conjunta y aplicar la oportuna reducción, se considerará que el fallecimiento ha acaecido el 31 de diciembre.

TÍTULO XII

GESTIÓN

CAPÍTULO I

AUTOLIQUIDACIONES

Artículo 102. Obligación de autoliquidar.

1. Los contribuyentes estarán obligados a presentar y suscribir autoliquidación por este Impuesto, con los límites y condiciones que reglamentariamente se establezcan.

2. No obstante, no estarán obligados a autoliquidar los contribuyentes que obtengan rentas procedentes exclusivamente de las siguientes fuentes:

a) Rendimientos brutos del trabajo, con el límite de 12.000 euros anuales en tributación individual. Este límite operará en tributación conjunta respecto de cada uno de los contribuyentes que obtengan este tipo de rendimientos.

b) Rendimientos brutos del trabajo superiores a 12.000 euros y hasta el límite de 20.000 euros anuales en tributación individual, salvo que se encuentren incluidos en alguno de los supuestos del apartado 3 siguiente. Este límite operará en tributación conjunta respecto de cada uno de los contribuyentes que obtengan este tipo de rendimientos.

c) Rendimientos brutos del capital y ganancias patrimoniales, incluidos en ambos casos los exentos, que no superen conjuntamente los 1.600 euros anuales.

3. Aquellos contribuyentes a los que se refiere la letra b) del apartado anterior estarán obligados a presentar autoliquidación por este Impuesto en los siguientes supuestos:

a) Cuando perciban rendimientos del trabajo procedentes de más de un pagador.

b) Cuando hubiesen suscrito más de un contrato de trabajo, laboral o administrativo, en el ejercicio o prorrogado el que estuviese vigente.

c) Cuando perciban pensiones compensatorias recibidas del cónyuge o pareja de hecho, o anualidades por alimentos diferentes de las previstas en el número 1 del artículo 9 de esta Norma Foral.

d) Cuando se encuentren incluidos en alguno de los supuestos establecidos reglamentariamente.

No obstante, cuando el contribuyente esté obligado a presentar autoliquidación como consecuencia de lo dispuesto en este apartado, podrá optar entre:

- tributar de acuerdo con las disposiciones generales de este Impuesto, o

- tributar, teniendo en cuenta exclusivamente los rendimientos del trabajo, según las siguientes reglas:

a) Se aplicarán las tablas de porcentajes de retención, establecidas para los rendimientos del trabajo, sobre los rendimientos íntegros de trabajo devengados, excepto los que se encuentren exentos de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 9 de esta Norma Foral. A estos efectos, se tendrán en cuenta las reglas de determinación del importe de los rendimientos sometidos a retención y las de fijación y aplicación de las tablas de retención vigentes a la fecha del devengo del Impuesto.

b) La cantidad resultante como consecuencia de la aplicación de lo establecido en la letra a) anterior, se minorará en el importe de las retenciones e ingresos a cuenta efectuados sobre los rendimientos del trabajo. La cantidad resultante será la que deberá ingresarse en la Diputación Foral y podrá fraccionarse en la forma que reglamentariamente se determine. En ningún caso procederá devolución alguna como consecuencia de la utilización de este procedimiento de liquidación.

c') Inolaz ere ez da aplikatuko ez gastu kengarririk, ez hobaririk, ez txikipenik, ez baterako tributazioko araurik, ez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arauetan ezarritako pizgarririk.

4. Zergadunek aitopenean jasotako eta eurak ukitzen dituzten datu guztiak osatu beharko dituzte, eta finkatutako edo finkatzen diren dokumentu eta frogagiriak erantsi.

5. Kausatzailearen oinordekoek falta diren zerga honen autoliquidazioak aurkeztu eta sinatu beharko dituzte, zehapenak bazter utzita, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 39. artikularekin bat etorritik.

6. Zergadunek egoitza aldatzen badute, Zerga Administrazioari horren berri eman beharko diote, horrek Zerga eskatzeko eskumenean ere aldaketak eraginez gero.

7. Autoliquidazio ereduak eta autoliquidaziorako modalitate erraztuak edo bereziak erabiltzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartuko ditu. Foru diputatu horrek berak zehaztuko du autoliquidazioa nola eta noiz aurkeztu behar den, bai eta autoliquidazioak baliabide telematikoen bidez nolako kasuetan eta nola aurkez daitezkeen ere.

8. Foru Aldundiak ezarritako baliabideak, prozesu informatiko edo bestelakoak edo zerbitzuak erabiliz edo horietaz baliatuz egin daitezke zerga honen autoliquidazioak, arau bidez finkatzen denaren arabera.

103. artikulua. Autoliquidazioa eta zerga zorraren sarrera.

1. Autoliquidazioa aurkeztearekin batera zergadunek zerga zorra zehaztu beharko dute, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak erabakitako tokian, moduan eta epean ordaindu beharko dute.

2. Autoliquidazioaren ondorioz egin beharreko sarrera arau bidez ezartzen den moduan zatitu ahal izango da.

3. Aparteko kasuetan, Foru Aldundiak, nahi dituen txostenak egin eta gero, zerga zorra (eta behar denean zehapenak ere bai) zehazki ondasun edo eskubide emanez ordaintzea onartu ahal izango du.

Aipatutako ondasunak zerbait ordaintzeko ematen direnean agerian geratzen diren errentak ez dira sartuko zerga oinarrian, eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 59. artikuluko 2. idatz zatian araututako kasuetan agerian geratzen direnak ere ez.

4. Kausatzailearen oinordekoek zerga honen ziozko betebeharrak burutu gabeak bete beharko dituzte, zehapenak ez beste guztiak, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 39. artikularekin bat etorritik.

104. artikulua. Autoliquidazio proposamenak.

1. Foru Aldundiak autoliquidazioaren proposamena bidali ahal izango du autoliquidazioa egin behar duten zergaduneei.

2. Zergadunaren ustez proposatutako autoliquidazioan beraren zerga egoera islatzen bada, proposamena sinatu, berretsi edo aldatu ahal izango du arau bidez ezarritakoarekin bat etorritik. Hori eginez gero, proposamena autoliquidaziotzat hartuko da.

Foru Aldundiak bidalitako autoliquidazio proposamena sinatu edo berresten duen zergadunari ezin izango zaio zehapenik ezarri proposamenean jasotako datuak direla eta.

3. Zergadunak ez badu onartzen bidali zaion autoliquidazio proposamena, administrazio jarduketara ez egintzat joko da eta zergadunak autoliquidazioa aurkeztu beharko du, betebeharrak hori edukiz gero.

105. artikulua. Autoliquidazioa aurkeztean egin behar diren hautapenak.

Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 115. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoa aplikatzeko, zerga honen autoliquidazioa aurkezten denean hautapen hauek egin behar dira:

c') En ningún caso serán de aplicación gastos deducibles, bonificaciones, reducciones, deducciones, reglas de tributación conjunta o cualquier otro incentivo previsto en la normativa reguladora del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

4. Los contribuyentes deberán completar la totalidad de los datos que les afecten contenidos en las autoliquidaciones, así como acompañarlas de los documentos y justificantes establecidos o que se establezcan.

5. Los sucesores del causante quedarán obligados a cumplir las obligaciones de presentar y suscribir las autoliquidaciones pendientes por este Impuesto, con exclusión de las sanciones, de conformidad con el artículo 39 de la Norma Foral General Tributaria de Álava.

6. Los contribuyentes están obligados a comunicar a la Administración tributaria los cambios de residencia que originen modificaciones en la competencia para exigir el Impuesto.

7. Los modelos de autoliquidación, así como la utilización de modalidades simplificadas o especiales de autoliquidación, se aprobarán por el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, que establecerá la forma y plazos de su presentación, así como los supuestos y condiciones de presentación de las autoliquidaciones por medios telemáticos.

8. Las autoliquidaciones por este Impuesto se podrán efectuar utilizando o aprovechando medios, procesos informáticos o de otro tipo o servicios establecidos por la Diputación Foral, en los términos que reglamentariamente se establezcan.

Artículo 103. Autoliquidación e ingreso de la deuda tributaria.

1. Los contribuyentes, al tiempo de presentar su autoliquidación, deberán determinar la deuda tributaria correspondiente e ingresarla en el lugar, forma y plazos determinados por el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

2. El ingreso del importe resultante de la autoliquidación se podrá fraccionar en la forma que reglamentariamente se determine.

3. En casos excepcionales, la Diputación Foral, previos los informes que estime oportunos, podrá admitir el pago de la deuda tributaria y, en su caso, de las sanciones, mediante la entrega de cualquier bien o derecho.

No se integrarán en la base imponible las rentas que se pongan de manifiesto con ocasión de la dación en pago de los bienes referidos ni en los supuestos a que hace referencia el apartado 2 del artículo 59 de la Norma Foral General Tributaria de Álava.

4. Los sucesores del causante quedarán obligados a cumplir las obligaciones tributarias pendientes por este Impuesto, con exclusión de las sanciones, de conformidad con el artículo 39 de la Norma Foral General Tributaria.

Artículo 104. Propuestas de autoliquidación.

1. La Diputación Foral podrá remitir a los contribuyentes obligados a autoliquidar, una propuesta de autoliquidación.

2. Cuando el contribuyente considere que la propuesta de autoliquidación remitida refleja su situación tributaria, podrá suscribirla, confirmarla o modificarla en las condiciones que se establezcan reglamentariamente. En este supuesto tendrá la consideración de autoliquidación.

El contribuyente que haya suscrito o confirmado la propuesta de autoliquidación remitida por la Diputación Foral no podrá ser objeto de sanción respecto de los datos incluidos en dicha propuesta.

3. Si el contribuyente no presta su conformidad con la propuesta de autoliquidación remitida, se tendrá por no efectuada la actuación administrativa, quedando el contribuyente obligado a presentar, en el supuesto de que tenga esta obligación, la autoliquidación correspondiente.

Artículo 105. Opciones que deben ejercitarse con la presentación de la autoliquidación.

A los efectos de lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 115 de la Norma Foral General Tributaria de Álava, se entenderá que en este impuesto son opciones que deben ejercitarse con la presentación de la autoliquidación, las siguientes:

a) Atzerrian egindako lanaren etekinen salbuespena (9. artikuluko 17. zenbakian arautu da).

b) Aparteko mozkinen berrinbertsioa (25. artikuluko 3. idatz zatian arautu da).

c) Aurreko ekitaldietako saldo negatiboen konpentsazioa (65. artikuluko b) idatz zatian arautu da).

d) Desgaitasunagatikoen kenkaria (82. artikuluan arautu da).

e) Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak (88., 89. eta 90. artikuluetan arautu dira).

f) Zerga batera ordaintzea (97. artikuluan arautu da).

g) Negoziatzeko onartutako baloreek sortutako ondare irabazietarako aukerako tributazio araubidea (hogeigarren xedapen gehigarrian arautu da).

II. KAPITULUA

KONTURAKO ORDAINKETAK

106. artikulua. Konturako ordainketak.

1. Zerga honetan konturako ordainketak beti izango dira zerga zorrak; mota hauek izan daitezke:

a) Atxikipenak.

b) Konturako sarrerak.

c) Zatikako ordainketak.

2. Egoitzaren aldaketa dela eta norbait zergadun bihurtzen ba, zerga honen konturako ordainketatzat joko dira egoitza aldatu den zergaldian Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergagatik egindako atxikipenak eta konturako sarrerak.

Zerga honen ziozko zergadun ez diren besteren konturako langileak Espainiako lurraldera aldatuko direla eta zergadun bihurtuko badira, Zerga Administrazioari jakinarazi ahal izango diote inguruabar hori, eta Espainiako lurraldean zein egunetan sartuko diren adierazi, lanaren etekinen ordaintzaileak zerga honen ziozko zergaduntzat har ditzan, ez beste ezertarako.

Araudian ezartzen den prozedurari jarraituz, Zerga Administrazioak frogagiria emango die hala eskatzen dioten besteren konturako langileei, lanaren etekinak ordaintzen dizkieten Espainiako egoiliarrei edo bertan establezimendu iraunkorra dutenei eman diezaieten agiri hori. Agiri horretan adieraziko da zein egunetatik aurrera egin behar diren zerga honen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, eta idatz zati honetako lehenengo paragrafoan adierazitakoa hartuko da kontuan atxikipen tasa kalkulatzeko.

3. Zerga honen konturako ordainketatzat hartuko dira Kontseiluak aurrezkien korrituen ziozko etekinen fiskalitateari buruz ekainaren 3an emandako 2003/48/EE Zuzentarauko 11. artikuluan xedatutakoa dela bide aplikatutako atxikipenak.

107. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrerak egin beharra.

1. Jarraian aipatuko direnak behartuta daude atxikipenak eta konturako sarrerak egitera, jasotzaileari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketa gisa, arau bidez zehazten den kopuruan, bai eta horien zenbatekoa Foru Aldundiari ordaintzera ere Ekonomia Itunean jasotako kasuetan eta errege-lamendu bidez finkatzen den moduan:

a) Zerga honen kargapean eta salbuetsi gabe dauden errentak ordaintzen dituzten pertsona juridikoak eta erakundeak, errenta atxikipeneko erakundeak barne.

b) Jarduera ekonomikoren bat egiten duten zerga honen ziozko zergadunek, jarduera horietan ordaintzen dituzten zergapeko eta salbuetsi gabeko errentei dagokienez.

c) Espainiako lurraldean egoitzarik ez duten baina establezimendu iraunkorraren bidez edo establezimendu iraunkorrik gabe bertan diharduten pertsona fisiko edo juridikoek eta gainerako erakundeek, ordaintzen dituzten lanaren etekinei dagokienez eta atxikipena edo

a) La exención de rendimientos de trabajo percibidos por trabajos efectivamente realizados en el extranjero, regulada en el número 17 del artículo 9.

b) La reinversión de beneficios extraordinarios, regulada en el apartado 3 del artículo 25.

c) La compensación de saldos negativos de ejercicios anteriores, regulada en el apartado b) del artículo 65.

d) La deducción por discapacidad, regulada en el artículo 82.

e) Las deducciones para el fomento de las actividades económicas reguladas en los artículos 88, 89 y 90.

f) La opción por tributación conjunta, regulada en el artículo 97.

g) El régimen opcional de tributación para las ganancias patrimoniales derivadas de valores admitidos a negociación, regulado en la Disposición Adicional Vigésima.

CAPÍTULO II

PAGOS A CUENTA

Artículo 106. Pagos a cuenta.

1. En este Impuesto los pagos a cuenta que, en todo caso, tendrán la consideración de deuda tributaria, podrán consistir en:

a) Retenciones.

b) Ingresos a cuenta.

c) Pagos fraccionados.

2. Cuando el contribuyente adquiera su condición por cambio de residencia, tendrán la consideración de pagos a cuenta de este Impuesto las retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de no Residentes practicadas durante el período impositivo en que se produzca el cambio de residencia.

Los trabajadores por cuenta ajena que no sean contribuyentes por este Impuesto, pero que vayan a adquirir dicha condición como consecuencia de su desplazamiento a territorio español, podrán comunicar a la Administración tributaria dicha circunstancia, dejando constancia de la fecha de entrada en dicho territorio, a los exclusivos efectos de que el pagador de los rendimientos del trabajo les considere como contribuyentes por este Impuesto.

De acuerdo con el procedimiento que reglamentariamente se establezca, la Administración tributaria expedirá un documento acreditativo a los trabajadores por cuenta ajena que lo soliciten, que comunicarán al pagador de sus rendimientos del trabajo, residentes o con establecimiento permanente en España, y en el que conste la fecha a partir de la cual las retenciones e ingresos a cuenta se practicarán por este Impuesto, teniendo en cuenta para el cálculo del tipo de retención lo señalado en el primer párrafo de este apartado.

3. Tendrán la consideración de pagos a cuenta de este Impuesto las retenciones a cuenta efectivamente practicadas en virtud de lo dispuesto en el artículo 11 de la Directiva 2003/48/CE del Consejo, de 3 de junio, en materia de fiscalidad de los rendimientos del ahorro en forma de pago de intereses.

Artículo 107. Obligación de practicar e ingresar retenciones e ingresos a cuenta.

1. Estarán obligados a practicar retención e ingreso a cuenta, en concepto de pago a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondiente al perceptor, en la cantidad que se determine reglamentariamente y a ingresar su importe en la Diputación Foral en los casos previstos en el Concierto Económico en la forma que reglamentariamente se establezca:

a) Las personas jurídicas y entidades, incluidas las entidades en atribución de rentas, que satisfagan o abonen rentas sujetas y no exentas a este Impuesto.

b) Los contribuyentes por este Impuesto que ejerzan actividades económicas respecto de las rentas sujetas y no exentas a este Impuesto que satisfagan o abonen en el ejercicio de dichas actividades.

c) Las personas físicas, jurídicas y demás entidades no residentes en territorio español, que operen en él mediante establecimiento permanente, o sin establecimiento permanente respecto a los rendimientos del trabajo que satisfagan, así como respecto de otros

konturako sarrera dakarten gainerako etekinei dagokienez, baldin eta etekin horiek guztiak gastu kengarriak badira Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 23. artikuluko 2. idatz zatian aipatzen diren errentak lortzeko.

Erakunde batek, egoiliarra izan ez, lanaren etekinak ordaintzen badizkie Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera zerga horren kargapean dagoen erakunde egoiliar baten edo Espainiako lurraldean dagoen establezimendu iraunkor baten zerbitzuan ari diren zergadunei, zergadunaren zerbitzuak jasotzen dituen erakundeak edo establezimendu iraunkorrak egin behar du atxikipena edo konturako sarrera.

Aseguru Pribatuaren Antolamenduari eta Ikuskapenari buruzko Legearen testu bateginek 86. artikuluko 1. idatz zatian xedatutakoaren arabera izendatutako ordezkariak, zerbitzugintza askearen araubidean diharduen aseguru erakunde baten izenean ari bada, Espainian egiten dituen eragiketak direla-eta atxikipena eta konturako sarrera egin behar ditu.

Europar Batasuneko beste estatu batean egoiliartutako pentsio funts batek Espainian merkaturatzen baditu Espainiako legeriari lotuta dauden laneko pentsio planak, laneko pentsio funtsen jarduerak eta gainikuspena arautzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EE Zuzentarauan ezarritakoaren arabera, zerga egoitza Espainian duen ordezkaria izendatu behar du haren zerga betebeharez arduratu dadin. Ordezkari horrek atxikipena eta konturako sarrera aplikatu behar ditu Araban egiten diren eragiketetan.

Atzerriko estatuek Espainian dauzkaten misio diplomatikoen eta kontsul bulegoen ez dute atxikipenik ez konturako sarrerarik aplikatu behar.

2. Errenta jakin batzuei atxikipena edo konturako sarrera egin behar diren salbuespenak ezarri ahal izango dira araudian.

3. Atxikipena edo konturako sarrera egin behar duten subjektuek euren gain hartu behar dute Foru Aldundiari dirua ordaindu beharra; betebehaz hura ez betetzeak ez ditu salbuetsiko sarrera egin beharretik.

4. Baldin eta epaile edo administrazio baten ebazpena dela bide pertsona batek zerga honengatik atxikipena edo konturako sarrera aplikatu behar zaion errenta bat ordaindu behar badu, atxikipena edo konturako sarrera ordaindu beharreko diru kopuru osoari aplikatu behar dio eta zenbatekoa Foru Aldundiari sartu behar dio, artikuluko honetan ezarri den bezala.

5. Atxikipena edo konturako sarrera aplikatu beharreko etekinak jasotzen dituzten zergadunek atxikipena edo konturako sarrera kalkulatzeko kontuan hartu beharreko inguruabarrak jakinarazi behar dizkiote ordaintzaileari (araudian ezarriko da nola).

108. artikulua. Atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa.

1. Atxikipenaren zenbatekoa kalkulatzeko araudian finkatzen den ehunekoak aplikatu behar zaio ordaintzen edo abonatzen den kopuru osoari.

2. Gauzako ordainsariengatik egin beharreko konturako ordaintzenaren zenbatekoa kalkulatzeko araudian finkatzen den ehunekoak aplikatu behar zaio foru arau honetan ezarritakoaren arabera kalkulatzeko balioari.

3. Jasotzaile bati lanaren errentak diruz eta gauzaz ordaintzen zaizkionean, atxikipena ordaindutako kontraprestazio edo onura guztien gainean egingo da.

Kasu horietan, aurreko 1. idatz zatian aipatzen den atxikipenaren ehunekoak kalkulatzeko kontuan hartu behar dira aurreikus daitezkeen diruzko eta gauzako ordainsariak, finakoak zein aldakorak. Urtean zehar diruzko edo gauzako ordainsarien zenbatekoa aldatzen bada, beste ehuneko bat kalkulatu behar da aldaketak kontuan hartuta. Dena delako aldaketak gertatzen direnetik aurrera bakarrik aplikatuko da beste ehuneko hori.

rendimientos sometidos a retención o ingreso a cuenta que constituyan gasto deducible para la obtención de las rentas a que se refiere el apartado 2 del artículo 23 de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de No Residentes.

Cuando una entidad, residente o no residente, satisfaga o abone rendimientos del trabajo a contribuyentes que presten sus servicios a una entidad residente vinculada con aquélla en los términos previstos en el artículo 42 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, o a un establecimiento permanente radicado en territorio español, la retención o el ingreso a cuenta deberá efectuarlo la entidad o el establecimiento permanente en el que preste sus servicios el contribuyente.

El representante designado de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 86 del texto refundido de la Ley de ordenación y supervisión de los seguros privados, que actúe en nombre de la entidad aseguradora que opere en régimen de libre prestación de servicios, deberá practicar retención e ingreso a cuenta en relación con las operaciones que se realicen en España.

Los fondos de pensiones domiciliados en otro Estado miembro de la Unión Europea que desarrollen en España planes de pensiones de empleo sujetos a la legislación española, conforme a lo previsto en la Directiva 2003/41/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 3 de junio de 2003, relativa a las actividades y la supervisión de fondos de pensiones de empleo, estarán obligados a designar un representante con residencia fiscal en España para que les represente a efectos de las obligaciones tributarias. Este representante deberá practicar retención e ingreso a cuenta en relación con las operaciones que se realicen en Álava.

En ningún caso estarán obligadas a practicar retención o ingreso a cuenta las misiones diplomáticas u oficinas consulares en España de Estados extranjeros.

2. Reglamentariamente podrán excepcionarse de la obligación de practicar retención e ingreso a cuenta sobre determinadas rentas.

3. En todo caso, los sujetos obligados a retener o a ingresar a cuenta asumirán la obligación de efectuar el ingreso en la Diputación Foral, sin que el incumplimiento de aquella obligación pueda excusarles del cumplimiento de esta obligación de ingreso.

4. Cuando en virtud de resolución judicial o administrativa deba satisfacerse una renta sujeta a retención o ingreso a cuenta de este Impuesto, el pagador deberá practicar la misma sobre la cantidad íntegra que venga obligado a satisfacer y deberá ingresar su importe en la Diputación Foral, de acuerdo con lo previsto en el presente artículo.

5. Los contribuyentes deberán comunicar al pagador de rendimientos sometidos a retención o ingreso a cuenta de los que sean perceptores, las circunstancias determinantes para el cálculo de la retención o ingreso a cuenta procedente, en los términos que se establezcan reglamentariamente.

Artículo 108. Importe de las retenciones e ingresos a cuenta.

1. El importe de la retención será el resultado de aplicar a la cuantía íntegra que se satisfaga o abone el porcentaje que reglamentariamente se establezca.

2. El importe del pago a cuenta que corresponda realizar por las retribuciones en especie será el resultado de aplicar al valor de las mismas, determinado según las normas previstas en esta Norma Foral, el porcentaje que reglamentariamente se establezca.

3. Cuando se satisfagan o abonen rentas del trabajo dinerarias y en especie a un mismo percceptor, se practicará retención sobre la totalidad de las contraprestaciones o utilidades satisfechas.

En estos supuestos el porcentaje de retención a que se refiere el apartado 1 anterior se calculará teniendo en cuenta las retribuciones dinerarias y en especie tanto fijas como variables que sean previsibles. Cuando durante el año se produzcan variaciones en la cuantía de las retribuciones dinerarias o en especie, se calculará un nuevo porcentaje teniendo en cuenta las alteraciones producidas. Este nuevo porcentaje se aplicará exclusivamente a partir de la fecha en que se produzcan las referidas variaciones.

Ordaindutako diruzko etekinetatik kopuru hau kendu behar da: aurreko paragrafoan aipatutako ehuneko ordaindutako kontraprestazio eta onuren guztirako zenbatekoari aplikatzearen emaitzako kopurua.

109. artikulua. Atxikipenaren eta konturako sarreraren kalkulua.

1. Zerga honengatik atxikipena aplikatu behar zaion errentaren bat jasotzen duenak sortutako kontraprestazio osoa hartu behar du errentaren zenbatekotzat.

Atxikipenik egin ez bada edo behar baino zenbateko txikiagoa atxiki bada, hartzaileak atxiki behar zen zenbatekoa kenduko du kuotatik.

Legez ezarritako eta sektore publikoak ordaindutako ordain-sarien kasuan, egiatan atxikitako zenbatekoak baino ezin izango ditu kendu hartzaileak.

Kontraprestazio ordaindu osoa ezin egiazta daitekeenean, Zerga Administrazioak zenbateko bat konputatu ahal izango du zenbateko oso gisa, zenbateko hori, atxikipena kendu ondoren, egiatan jasotakoa adinakoa bada. Kasu horretan, egiatan jasotakoaren eta zenbateko osoaren arteko aldea kenduko da kuotatik konturako atxikipen gisa.

2. Konturako sarrera egin beharra dagoenean, sarrera hori egintzat joko da. Gauzazko ordainsarien balorazioa zerga oinarrian sartuko du zergadunak, foru arau honetan ezarritako arauari jarraituz, eta konturako sarrera ere bai, jasanarazi ez bazaio.

110. artikulua. Zatikako ordainketak.

1. Jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergadunek zatikako ordainketak egin behar dituzte zerga honen kontura (araudian zehaztuko da nola).

2. Araudian betebeharrak salbuetsi ahal izango dira euren sarreretan atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu zaizkien zergadunak; salbuespenaren ehunekoak berariaz ezarriko da.

3. Errenta eratxikipenaren araubidea izan eta jarduera ekonomikoak egiten dituzten erakundeei dagokien zatikako ordainketa horrelako errentak egotzi ahal zaizkien bazkide, jaraunse, erkide edo partaideetarik bakoitzeko egingo da, bakoitzak erakundearen mozkinetan duen partaidetzaren arabera proportzioan.

III. KAPITULUA

BEHIN-BEHINEKO LIKIDAZIOAK

111. artikulua. Behin-behineko likidazioak.

Zerga Administrazioak bidezko behin-behineko likidazioak egin ahal izango ditu Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoarekin bat etorritik.

112. artikulua. Ofiziozko itzulketak.

1. Foru arau honetako 95. artikuluko 1. idatz zatian aipatutako diru kopuruen batura kuota likidoa baino gehiago bada, autolikidazioa aurkeztu ondoren Zerga Administrazioak likidazioa egin behar du autolikidazioa aurkezteko ezarritako epealdia amaitzen denetik sei hilabete pasatu baino lehen.

Autolikidazioa epez kanpo aurkeztuz gero, aurreko paragrafoan aipatutako sei hileko aldia aurkezpen egunetik aurrera zenbatuko da.

2. Autolikidazioaren edo, bestela, behin-behineko likidazioaren ondorioz gertatzen den kuota likidoa foru arau honetako 95. artikuluko 1. idatz zatian aipatzen diren diru kopuruen batura baino gutxiago bada, Zerga Administrazioak kuota horretatik gorako gaindikina itzuliko du ofizioz aurreko idatz zatian ezarritako epealdian; horrek ez du eragotziko gero bidezkoak diren likidazioak egitea, behin-behinekoak edo behin betikoak.

3. Behin-behineko likidazioa artikuluko honetako 1. idatz zatian ezarritako epealdian egin ezean, Zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du autolikidatutako kuotatik gorako gaindikina. Hala ere, gero egin ahalko dira bidezko gertatzen diren likidazioak, behin-behinekoak edo behin betikoak.

El importe resultante de aplicar el porcentaje referido en el párrafo anterior a la totalidad de las contraprestaciones y utilidades satisfechas se reducirá de los rendimientos dinerarios abonados.

Artículo 109. Cómputo de la retención e ingreso a cuenta.

1. El perceptor de rentas sobre las que deba retenerse a cuenta de este Impuesto computará aquéllas por la contraprestación íntegra devengada.

Cuando la retención no se hubiera practicado o lo hubiera sido por importe inferior al debido, el perceptor deducirá de la cuota la cantidad que debió ser retenida.

En el caso de retribuciones legalmente establecidas que hubieran sido satisfechas por el sector público, el perceptor sólo podrá deducir las cantidades efectivamente retenidas.

Cuando no pudiera probarse la contraprestación íntegra devengada, la Administración tributaria podrá computar como importe íntegro una cantidad que, una vez restada de ella la retención procedente, arroje la efectivamente percibida. En este caso se deducirá de la cuota, como retención a cuenta, la diferencia entre lo realmente percibido y el importe íntegro.

2. Cuando exista obligación de ingresar a cuenta, se presumirá que dicho ingreso ha sido efectuado. El contribuyente incluirá en la base imponible la valoración de la retribución en especie, conforme a las normas previstas en esta Norma Foral y el ingreso a cuenta, salvo que le hubiera sido repercutido.

Artículo 110. Pagos fraccionados.

1. Los contribuyentes que ejerzan actividades económicas estarán obligados a efectuar e ingresar pagos fraccionados a cuenta de este Impuesto, en las condiciones que reglamentariamente se determine.

2. Reglamentariamente se podrá excepcionar de esta obligación a aquellos contribuyentes cuyos ingresos hayan estado sujetos a retención o ingreso a cuenta en el porcentaje que se fije al efecto.

3. El pago fraccionado correspondiente a las entidades en régimen de atribución de rentas, que ejerzan actividades económicas, se efectuará por cada uno de los socios, herederos, comuneros o partícipes, a los que proceda atribuir rentas de esta naturaleza, en proporción a su participación en el beneficio de la entidad.

CAPÍTULO III

LIQUIDACIONES PROVISIONALES

Artículo 111. Liquidaciones provisionales.

La Administración tributaria podrá practicar las liquidaciones provisionales que procedan de conformidad con lo establecido en la Norma Foral General Tributaria de Álava.

Artículo 112. Devoluciones de oficio.

1. Cuando la suma de las cantidades a que se refiere el apartado 1 del artículo 95 de esta Norma Foral sea superior a la cuota líquida, la Administración tributaria vendrá obligada a practicar liquidación, una vez presentada la autoliquidación, dentro de los seis meses siguientes al término del plazo establecido para la presentación de la autoliquidación.

Cuando la autoliquidación hubiera sido presentada fuera de plazo, los seis meses a que se refiere el párrafo anterior se computarán desde la fecha de su presentación.

2. Cuando la cuota líquida resultante de la autoliquidación o, en su caso, de la liquidación provisional, sea inferior a la suma de las cantidades a que se refiere el apartado 1 del artículo 95 de esta Norma Foral, la Administración tributaria procederá a devolver de oficio el exceso sobre la citada cuota en el plazo establecido en el apartado anterior, sin perjuicio de las posteriores liquidaciones, provisionales o definitivas, que procedan.

3. Si la liquidación provisional no se hubiera practicado en el plazo establecido en el apartado 1 de este artículo, la Administración tributaria procederá a devolver de oficio el exceso sobre la cuota autoliquidada, sin perjuicio de la práctica de las liquidaciones provisionales o definitivas posteriores que pudieran resultar procedentes.

4. Itzulketa egiteko epealdian Zerga Administrazioari egotzi ahal zaizkien arrazoiengatik berori ordaintzeko agindua ematen ez bada, epealdia amaitu eta hurrengo egunetik itzulketa jasotzeko eskubidea onartzeko erabakia hartzen den egunera arte itzuli beharreko kopuruari Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26. artikuluko 6. idatz zatian aipatutako berandutze korrituak aplikatuko zaizkio. Zergadunak ez du edukiko eskatu beharrik.

5. Artikulu honetan aipatzen den ofiziozko itzulketa egiteko prozedura eta ordaintzeko modua araudian zehaztuko dira.

IV. KAPITULUA

BETEBEHAR FORMALAK

113. artikulua. Zergadunen betebeharrak.

1. Zergadunek euren autolikidazioetan zehaztu beharreko denetarikoen eragiketa, errenta, gastu, sarrera, murrizketa eta kenkari guztien frogagiriak eta egiaztatagiriak gorde behar dituzte preskripzioaldi osoan.

2. Jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunek eman beharreko fakturen inguruko kontrol prozedurak edo sistemak araudian ezarri ahal izango dira.

3. Araudian ondarearen arloko informazioaren inguruko betebeharrak ezarri ahal izango dira, hain zuzen ere zerga honen autolikidazioa aurkeztearekin batera bete beharrekoak, zergadunen errentak edo ondasun eta eskubide jakin batzuen erabilera kontrolatzeko.

4. Pertsona desgaituen ondarea babestu eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta horri buruzko zerga araudia aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Legeak araututako ondare babestuen titularrak diren zerga honetako zergadunek aitortpena aurkeztu behar dute (araudian ezarriko da nola) ondareko elementuen berri emateko, eta zergaldian egin diren ekarpenak eta diru baliatzeak argitzeko.

114. artikulua. Kontabilitateko eta erregistroko betebeharrak.

1. Jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergadunek Merkataritza Kodean agindutako kontabilitatea artzitu behar dute, eta Sozietateen gaineko Zergarako ezarritako erregistro osagarriak ere bai.

2. Aurreko idatz zatian xedatutakoa gorabehera, jarduera ekonomikoa ez bada merkataritzakoa Merkataritzako Kodearen arabera edo beraren etekina zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatu bada, erregistroko betebeharrak bakar liburu hauek artzitzea izango da:

- a) Salmenten eta sarreren erregistro liburuak.
- b) Erosketen eta gastuen erregistro liburuak.
